



GURE ORDEZKARIAK

ARABA: LEILA MARTÍN 945004919

BIZKAIA: MERTXE GUILLÉN 944016525

GIPUZKOA: BEGOÑA GARTZIA 943004361

Intraneten argitaratua 2011/11/04an:

Hiru urteko osasun-azterketak 2022-2023

Osasunaren zaintzari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileek hiru urtean behin egin ahal izango dute osasun-azterketa, 2022ko azaroan eta abenduan eta 2023 urte osoan.

Justizia Administrazioko Kudeaketa, Izapidetze, Laguntza Judizial eta Auzitegiko Medikuen kidegoetako langileek eska dezakete.

Prozedura:

a) Azterketa medikoa EGIN NAHI DUTEN pertsonen "[Osasun-azterketa eskaera](#)" inprimakia bete. Eskaera jaso ondoren, IMQ PREVENCIÓN eskatzailearekin harremanetan jarriko da hautatutako [osasun-zentroan](#) hitzordua hartzeko.

b) Azterketa medikoa egin NAHI EZ duten pertsonen "[Osasun-azterketa eskaera](#)" inprimakia bete dezakete, EZ dut azterketa medikoa egin nahi.

Edozein zalantza argitzeko (hitzorduek, ordutegiak, lekuak, gomendioak...), IMQ PREVENCIÓNren telefonoetara dei daiteke:

Araba: 945 009 872

Bizkaia: 944 252 525

Gipuzkoa: 943 316 345

Nolanahi ere, osasun-azterketa egiteko gomendio nagusiak hauek dira:

- Esandako orduan joan mediku-azterketara, baraurik eta goizeko lehen gernuaren flasko txiki esteril batean jasotako gernu-lagin batekin. Flaskoak EATan edo Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorretan jaso daitezke, edo IMQ PREVENCIÓNri eskatu.

- Gaixotasun garrantzitsuren bat baduzu edo izan baduzu, medikuaren txostenarekin joan behar duzu.

- Betaurrekoak erabiltzen badira, osasun-azterketara eraman behar dira.

- Aipatutako langilea aldi baterako ezintasun-egoeran badago, gaixotasunagatik edo istripuagatik, ez du osasun-azterketara joan behar langilea laneko alta-egoeran egon arte.

Informazio gehiago nahi izanez gero, "[Osasun-azterketak 2022-2027](#) " informazio-dokumentua kontsulta daiteke. Bertan, protokolo medikoak, osasun-zentroak eta abar zehazten dira.

2022/11/07